

# Abere ustiategietan abeltzaintza sendagaiak modu arduratsuan erabiltzea

## Sendagaiak

abeltzaintza-ekoizpenean erabiltzen diren tresnak dira, eta kontrolatu egin behar dira, Animalien Ongizatean eta Osasun Publikoan dituzten ondorioak direla eta.

## Sendagaien erabilerak ezin ditu ordezkatu ustiategiko jardunbide egokiak

5 Gako

1. Albaitariaren agindupean
2. Erabilera
3. Erregistratzea
4. Biltegitratzea
5. Desagerraraztea



### 1 Albaitariaren agindua

Albaitaria da albaitaritza-sendagaiak ematea agintzeko baimena duen espezialista bakarra. Errezeta sendagai bat albaitariaren aginduz eman dela bermatzen duen dokumentua da. Abeltzaintza-ekoizpenean erabiltako sendagai gehienek albaitariaren agindua behar dute.



### 2 Behar bezala erabiltzeko, honako hauek errespetatu:

Dosifikatzea.  
Administrazio-bidea.  
Helmuga: zein animalientzat agindu den tratamendua.  
Tratamenduaren iraupena.  
Itxaron beharreko denbora.




### 3 Ustiategian emaniko tratamenduen erregistroa

Errezetaren atzealdean edo aparteko erregistro batean (Tratamenduen Liburua). Agintaritza eskudunaren eskura 5 urtez, errezetarekin batera. Datuak: data, sendagaiaren izena, dosia, patologia, hornitzailea, tratamenduaren iraupena, itxaron beharreko denbora, tratatutako animaliak eta errezeta-zenbakia.



### 4 Biltegitratzea

Leku seguru eta isolatuan.  
Leku lehor eta freskoan.  
Beharrezkoa bada, hotz edo izoztuta.  
Higiene-egoera egokietan.




### 5 Desagerraraztea

Sendagaiak ez dira bota behar hondakin arrunten zaborretara. Edukiontzi edo depositu berezietara bota behar dira. Baimendutako kudeatzai-leen bidez desagerrarazi behar dira.



## Jardunbide egokiak

- Tratatutako animaliak identifikatu, tratatu ez direnati bereizteko.
- Sendagaiak jatorrizko ontzietan gorde.
- Maiz ziurtatu sendagaiak gordetzeko erabiltzen den hozkailuaren tenperatura.
- Maiz ziurtatu sendagaien iraungitze-data.
- Ustiategian dauden sendagaien inbentarioa eguneratuta eduki.
- Sendagaiak euren helmugaren arabera berezita biltegitratu: lehorreko tratamendua, zekorrentzat, behientzat...



# Abere ustiategietan abeltzaintza sendagaiak modu arduratsuan erabiltzea



## Elikakateari buruzko informazioa

Abeltzainak hiltegiara igortzen duen aitortpena da, hil behar diren animaliekin batera doana eta azken hilabetean emaniko tratamenduak jasotzen dituen.



### Ba al zenekien...?

Antibiotikoak bezalako sendagaiak behar ez den moduan erabiltzeak arriskua dakar giza osasunerako, izan ere:

- Gaixotasun bat eragiten duten bakterioak desagerrarazteko antibiotikoren bat ematen denean, beste bakterio onuragarri batzuk ere desagerrarazten dira, eta horiek funtsezkoak dira organismoak behar bezala funtziona dezan.
- Bakterio onuragarriek bakterio kaltegarrien hazkundera ere kontrolatzen dute. Bakterio onuragarriak desagerrarazten direnean utzitako lekua antibiotikoekiko erresistentzia duten bakterio kaltegarriek har dezakete, euren kopurua ere handituz.
- Horrela hautatutako bakterio kaltegarriak ez dira ezarritako antibiotikoarekiko erresistenteak bakarrik: beste antibiotikoekiko erresistentzia ere izan dezakete.



### Gogoratu

Sendagaia ematen duena da tratamenduaren arduraduna, eta, beraz, edozein hutsegiteren arduraduna ere bai.

Ezin da egon eta ezin da eman debekatutako substantziarik, hala nola: tireostatikoak, estilbenoak eta eratorriak, 17-Beta-Estradiola edo ester motako bere eratorriak, eta Beta-agonistak.

Sendagaiak behar bezala ez erabiltzeak zenbait motatako zigorrak ekar ditzake: administratiboak, penalak eta/edo Ordainketa Bakarra kobratzea murrizten dutenak.



### Informazio interesgarria

Euskadin sendagai-hondakinak baztertzeko kudeatzaileen kontaktuak – Eusko Jaurlaritza  
Infografia: Higienea abeltzaintza-ustiategietan – ELIKA  
Zer da antibiotikoekiko erresistentzia? – ELIKA  
Antibiotikoekiko erresistentzia – ELIKA  
Elikagaien Segurtasunaren betekizunak, sektoreka – ELIKA

### Erreferentziazko legeria

Lotura: ELIKArekin Sektoreko araudia

